



Ekipoa	Molde itxiko sistema - RTM prozesua
Kodea	B-2014
Ingurumen-hobekuntza	<ul style="list-style-type: none"> - Airera igorritako estireno-emisioak ia % 90 murriz daitezke, molde irekiko sistemak erreferentziatzat hartuta. - RTM teknologia aplikatuz gero, sortutako hondakinen kopurua (material konposatu erretiratua) murriz daiteke, erabilitako material guztien % 10 baino gutxiagora; aitzitik, ohiko teknologia erabilia, hondakinen proportzioa izango litzateke erabilitako material guztien % 30–50 ingurukoa.
Honetan datza:	<p>Molde itxiko sisteman, lehenik beira-zuntz purua sartzen da molde irekian. Moldea ixteko, kontramolde bat erabil daiteke. Bai moldea, bai kontramoldea, gogor eta sendo izateko egin behar dira. Beira-zuntza moldean sartu eta kontramoldea jarri ostean, tutu malgu baten bidez konektatzen dira moldea eta erretxina-andela, gehigarriak dituena. Hutsaren edo presio handiaren bidez injektatzen da erretxina hori molde itxiko sisteman.</p> <p>Polimerizazioa moldearen barruan gertatzen da, poliester-erretxinagogortzen da eta estirenoa konposatu sintetikoan harrapatuta geratzen da. Horrenbestez, ia ez da estireno-emisiorik gertatzen.</p>
Zein sektoretan aplikatu daitekeen	<p>Kanpoan geratzen dira indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko duten jarduerak, eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <p>Teknika hori aplikatzen da produkzio-serie txikietarako (400 piezatik beherakoak) honako sektore honetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Plastikoa ekoizteko industria (NACE 22). <p>Teknologia hori ez da egokia beira-zuntzez sendotu gabeko produktu plastikoei beira-zuntzezko sendotze-geruza bat eransteko.</p>